

## DONOSTIA

---

### ¿ZEIN GERA EDERRAGUAK?

---

Donostiyan, «Alderdi-eder» bidetik pazela dago beriala Kantauriako Perla, **da esatia KONCHA.**

Gizon zarren esana da Jainkoak esan zubela: ara, Donostiarrak, urontzi bat, non indartuko diran aulak, sendatu eriyak, alaitu tristiak, baitare gaztetu zarrak.

Emen zeruka dala askorentzat dudarik ez da. Koncharen goi aldeko bidian dira ¡nolako echiak! Café Yayoak, Hotel Inglés, Hotel Kontinental, **onlako** jeneralena, **alako** ministrorena.

Atariyan ikusten dira galai panparroi asko beren erraztun begi aundiak biatzian dituztela diz diz egiñaz, Abanako zigarrua abuan artzerakuan; dama zuri gorri ederrak lastozko chapelak buruban luma fiñak alde batian dantzan dituztela, zerutik jechitako egaztiyak balira bezela.

Sinisten det nik, dala Jainko bat guztiya lezakena. ¿Nork sortu bes-tela egunero oyek biar dutena? Bañan ori utsa da. Begira, zagun playa Koncha ur-ontzira.

Irureun eche chiki olezko, churi urdiñ gorriz pintatubak, tellatu churi diz-dizariyakiñ daude ondarran erraztun batian diamante piñak bezela.

Beneziyan ez da alako inauteririk izaten. Bost edo sei baranda-aldi

sokazkuak ichaso eskiñetik gora, makill zuzenen muturretan bandera ori-gorri,zuri-urdiñ garbiyak batera ta bestera diosal egiten jendeari.

Konchako erdi parian batelikubat geldi geldi, belardi eder zabal batian bildoch belchak bezela.

Eskotatik echera, bi puntetatik gora bela zuriyak ageririk datozen chalupak, ala nola usoak beren usategira. Itz batian esateko, gora begiratu eta dirudi, zeruaren pusk'aundi bat bera eroriya.

Ikusi zagun oraiñ ondarreko festa.

Irtetzen dira echoletatik kabitik choriyak bezela; ziñatzen dira ur gazitan; egiten dute zanbulla; jartzen dira luze luze eroriyak; бага lertuen aparrakiñ batian alchatzen dira anchetak bezela bi kanian gora; alkarri esku emanta jartzen dira á la kinkirrinera ango algarra, ango oju irrintzi, iji aja, jostatze, kantatze bata bestiar bulkatze, ur tiratze, buruko illiak biltze.

¿Nola ez osasuna geitu eskasa dubenak ere?

Plei-plei eginta datozenian bakoitza bere echolara, ¡zeñek e zagutu nor nor dan! Batzubek goitik berañoko jantzi belzakiñ, bestiak pailasuak diruditela galtza zabal motzakiñ, bestiak boleruak, jantzi estu, pantorrill ta besuak ageriyen dituztenakiñ, elkarri bidian ondar tiraka putzura osteria bialtziagatik

Uste det beste erriyetakuak kaskariñaguak dirala Donostiarrak baño. ¡Donostiyako Koncha! Zerbaitengatik gizon jakintsu batek esan ziyon Iruchulori gaztelaniaz, nik orain eusker az jartzen detana:

Bildurik kabi ondarrezkuan  
Mendicho polit onduan  
Zisne choriya dirudizula  
Churi-churiitsasuan  
Ikusirikan zure doaiyak  
Konch-urdiñ zillarrezkuan  
Zeñak ederra zerala diyon  
Bere murmurcho gozuan.

Konchatik Donosti aldera beriala dago beste toki bat deitzen diyotena Alameda, BULEBARRA, nik deitzen diyot «Gloriya»

Gizon ta emakume zar eta gazte, aundi chikiyak gora beran bi edo iru milla; erdiyan aitu litezken soñurik ederrenak jotzen, guztiya urdiñ, ainbeste osto berrik argi zuriyari, elektrikuari, ematen diyoten kolo-

riarekiñ; illargi betia kafe Marinako goitik begira, koche kurpill soñuba isildu gabe; ezker eskuiyetan itsasua mur-mur; Frantzi aldeko burnizko bidiaren drun-drunekuak; Santa Teresa, Santa Mariya, San Hizenteko ordubén tin-tanak; eta ontan: arrantzako bapore-ontziyen chistuba.

Dira amaikak edo amabiyak, eta abiyatzen gera eche aldera ni bezelakuak, esanaz elkarri bidian: Jainkoari graziyak, badiagu bigarko arrai freskua merke.

† JOSÉ ZALA.

